

## INPRENTAK MINTZO DIRENEAN (MILLANGESTARRAK ETA EUSKARAZKO LIBURUAK)

### 0. Aitzin-hitz

Arrazoi desberdinak medio, ez dira asko klasikotzat dugun Literatura parametro normaletan kokatu eta aztertu ahal izateko ezinbesteko liratekeen liburugintzari buruzko albisteak, ez behintzat liburuen letretatik haratago doazenak. Are gutxiago dira, eta idorrago, denboraren harian atzerantz egiten denean agertzen diren notiziak. Egia esan, atzera joan ahala, proportzio geometrikoan areagotzen den iluntasuna da liburugintzaren inguruko panoramak erakusten duena. XVI. eta XVI. mendeetako, esaterako, ia hutsaren hurrengoa da gehienetan. Maiz asko, Euskal Literaturak aztertu nahi dituen liburuen orrialdeetatik beretatik atera behar izaten dira horrelako “informazioak”, eskasak betiere, edota beste literaturatan ikertutakoa garraiatu gurearen ikuspegia zertxobait argitzeko.

Egun, oraindik, aieru hutsetatik gehiegi urruntzen ez diren hipotesi gisakoak darabiltza euskarazko literaturak edizio-tiradei dagokienez, argitaratu ale kopuruez, liburuen kosteez eta merkatuan izandako prezioez, banaketa-prozesuez eta beste hainbat puntuz.

Han-hemen ostu oharrok bezalatsu, nonbait.

## 1.- Protestanteak eta kontrarreformistak prentsakide

Ezaguna da XVII. mendeko euskal literatura kontrarreformistaren argitaratze-lanetan gehien nabarmendu zen Guillaume (edo Guillen) Millanges izenekoak<sup>1</sup> “Erregeren imprimatçaille” bezala agertzeko baimena zuela eta horrela azaldu zela berak argitaratutako guztien azalean. Erret tituluaren meritua, halere, ez zen berea bakarrik, izan ere, Bordeleko mugak laster gaudituko zituen inprimatze-enpresa familiarraren erakitzeari ekin zion Simon Millanges aitari zor baitzion *status* handi haren lehen agiria.

Albisteek diotenez, Limousineko Mille-Millanges herrian jaioa zen Simon, 1540. urtearen inguruan. Noiz Bordeleratu zen ez jakin arren, egiaztatua dago, hango “Collège de Guyenne” izenekoan maisu edo arduradun gisara zebilela, eta ganorazko inprenta baten faltan, inprimatzaile izatera animatu zutela bertako adiskide humanistek.

Irakaskuntza baino erakargarriago, inprimatzeko teknologia berriak laster asko bereganatu zuen Simon Millangesen ekimena. Eta, pentsatu bezain azkar, taxuzko inprimategi bat antolatzeko behar zena erostea erabaki zuen. Bigarren eskukoa behar zuen, noski, gastuei aurre egingo bazien. Baina ez edonori erositia.

Ordurako, protestante kalbindarrek ondo erakutsia zuten zernolako kalitatea eman ziezaieketen argitalpenei, horren proba aratza Leizarragak prestatu erlijiozko lanen edizioa izan zelarik. Arroxelako Pierre Hau[[tinekin burutu zuen hiru idazlanen edizioa 1571n eta, ezaguna den bezala, anitz laudorio jaso ditu inpresio-lan haren mailaren kariatara.

Erljio-sentsibilitatean eta beste hainbat arlotan kalbindarrak urrutiegi ez zituzten humanista bordeldarrek aholkaturik, bada, Simon Millangesek Pierre Hau[[tini berari erosi zion beharrezko zuen inprentako tresneria, hots, “deux presses d’imprimerie, garnyes de leurs ustancilles, comme sont casses, chassis,

<sup>1</sup> Millanges zein Milanges agertu ohi da idazki eta liburuetan.

frisquettes, marbres, platinnes, treteaux, bancs, ancriers, poupettes et aultres choses”, eta baita ere “caracteres et pieces que s’ensuyvent: un gros texte et son ytalique, ung saint-augustin et son ytalique<sup>2</sup>, un petit romain et son ytalique; le tout pesant douze cens livres ou enveyron”<sup>3</sup>.

Erosketa 1572ko ekainaren 17an burutu zen, Leizarragaren obrak inprimatu zirenetik<sup>4</sup> bederatzita hilabetera, hain preseski.

Behin inprentaren jabe<sup>5</sup>, tintaz eta prentsaz haratago zihoa-zen bestelako negoziazioen premia ere baitzuen enpresaren etorkizunak, argitaratzaile berriak kontratu-idazkia<sup>6</sup> sinatu zuen Bordeleko hiriarekin 1573ko otsailaren 4an. Aurrerantzean izango zituen eskubideak, lehentasunak eta eginkizunak zehaztu ziren bertan.

Ildo hartan, Erregearen inprimatzailea izateko pribilegioa eskuratu zuen 1576ko uztailaren 11n, gero bere oinordekoek

<sup>2</sup> Erabili dugun Desgraves 1995 delakoan, autoreak ez du erantsi “ung cice-ron et son ytalique”, hain zuzen ere 1960an kaleratu transkribapenean zehaztu omen zuena (ikus Arcocha-Scarcia 2001, 65, 23 oharra).

<sup>3</sup> “Contrat de vente d’un matériel d’imprimerie par Pierre Haultin, imprimeur à La Rochelle, à S. Millanges, 17 juin 1572”, Archives Historiques de la Gironde, XXV/1887, 342-343 (ikus Desgraves 1995, 202-223).

<sup>4</sup> “Inprimatu” diogu zeren ez baitago argiegi ez ote zen lanaren “kaleratzea” ohi baino gehiago atzeratu, 1574ra arte hain zuzen. Horrela jasotzen da, be-deren, Lacombe argitaratu idazkietan (Lacombe 1931).

<sup>5</sup> Ez da argitu Haultin 1573an Bordelen kartzeleratua izateko arrazoia Millan-gesi saldutako tresneriaren akatsekin loturik dagoen, Desgravesek iradoki bezala.

<sup>6</sup> “Il s’engage, moyennant la fourniture d’un logement, rue Saint-James, et d’être reçu bourgeois et exempté de toutes les charges de bourgeois, à «dres-ser en ceste-dite ville une imprimerie et y imprimer livres avec baulx et bons caractères», et à posséder «deux presse pour le moings, garnies de membres, tympan, frisquettes, chassis, encayère, casses, traicteaux, oupetes et autres ustanciles necessaires a un imprimerie de renom. Le tout garny de laine, pe-aulx et parchemin; plus de douze sortes de caratères latins et de leurs matric-es [...] et autres caractères grecs qui seront necessaires à l’impression des livres qui s’y pourront presenter.» (Archives Historiques de la Gironde, 1/1869, 39-43; Desgraves 1995, 202).

ere izango zutena, hain zuzen. Ohi bezala, pribilegio hark zinezko “agent de la propagande royaliste” bilakatzen zuen inprimatzailea (Pallier 1981, 263).

Simon Millanges 1572tik 1623 ra bitartean aritu zen inprimatzaile gisa.

Mende erdi hartan sei ehun argitalpen baino gehiago kale-ratu zituen, besteak beste, Montaigneren *Essais* liburuaren lehenengo edizio biak (1580 eta 1582). Edizioen alderdirik sendoena, dena den, eskola-liburuetan eta elizarekin eta elizgizonekin hitzartutako liburu eta propaganda kontrarreformistan zetzan. 1583an, esate baterako, Prévôt de Sansac artzapezpikuren bidez, Trentoko Kontzilioak onetsitako brebiarioak, meza-liburuak eta orduen liburuak argitaratzeko baimenak lortu zituen bordeldartuak<sup>7</sup>. Eta, diogun bidenabar, ez edonolako baimenak, Erromako elizburu Gregorio XIII.arena eta Frantziako errege Henrike III.arena baizik<sup>8</sup>.

Bistan da horrelako ekimenek eta baimenek emandako *ofizialtasun* kontrarreformisten fruitu izango zirela gero inguruko lurralde katolikoekin lortutako merkatu-loturak eta harremanak. Baina ezin da ahaztu erlijiozko liburuen monopolioa zuela Millangesek hego-mendebalde zabalean, XVI. mendean kontrarreformako materiala inprimatzeko zazpi inprenta baino ez baitzegoen Frantzia osoan: bost Parisen, bat Lyonen eta zazpigarrena, Millangesena, Bordelen<sup>9</sup>.

---

<sup>7</sup> Liburu kontrarreformistak argitaratu ahal izateko merkatua monopolizatu nahian ziharduten inprimatzaile handiek haien artean zizutzen borroka latzen panoraman bitxi samarra egiten da Bordelera, inprimatzaile hasi berri bategana, igorritako baimena. Pallier-ek uste duenez, “la cause invoquée était l'éloignement de Paris et de Lyon: les livres d'usage édités là seraient d'un coût trop élevé pour le clergé, et même ne pourraient arriver à Bordeaux, vu le danger des routes” (Pallier 1981, 241-242).

<sup>8</sup> 1583ko azaroaren 1ekoa da katolikoek buruaren baimena; 1584ko martxoaren 14koa frantziar erregearena.

<sup>9</sup> Orotara, 35 pertsona ziren inpresio-lanetan zihardutenak.

Euskal lurraldeei dagokienez, ezaguna da Baionan liburute-gi bat ireki zuela, Jean Caudeyranek gobernatua, eta, haren birtartez, Hegoalderantz ere zabaldu zuela harremanen -eta negoziaren- sarea, Iruñetik Bilboraino. Azken hiri honetara, esaterako, Bordelen inprimatutako latinezko brebiario, meza- eta ordu-liburu tridentiar ofizialak igorri zituen 1586ko abenduaren 2an.

Simon Millanges hiltzean, Jacques semea arduratu zen inprimategiaz. Denbora laburrez, halere, 1624ko irailean hil baitzen.

1612tik aurrera “Erregeren inprimatzailea” izeneko titulua- ren jabe, Jacquesek ez bide zuen pribilegioa 1622ra arte baliatu. Guztiarekin ere, hiruzpalau urtez (1614-1617 eta 1622-1624) inprimatzaile gisa aritu zen aitaren orde-z. Euskal literaturak garai hartan ezagutu zuen Millangesen irarkola, lehendabiziko liburu-a E. Materrerren *Dotrina Christiana* liburuaren bigarren edizioa (1623) izan zelarik. Alabaina, Materrerren liburu haren lehen edizioak<sup>10</sup> ere *konexio* millangestarra -zeharkakoa- eza-gutu zuen, Bordeleko Petri de la Court izenekoak<sup>11</sup> argitaratu baitzuen 1617an, 1607tik 1615era bitartean Simon Millangese-nean aritu ondoren. Maisuaren lantegiaren kale berean, Saint-James kalean hain preseski<sup>12</sup> antolatu zuen hark inprimategia.

<sup>10</sup> - Wadding-ena da lehen edizio honetaz dugun erreferentzia bakarra: “Ma- terre (Etienne). Catechismus lingua Cantabrica. Burdigalae, apud Petrum de la Court, anno 1617” (*Scriptores ordinis minorum*, Erroma, 1650, 320 or., 2. zutabe-an; ikus Vinson 1891: 1984, 50).

<sup>11</sup> - Bordeleko François Budier izeneko inprimatzailearen suhia, aitagarre-baren lantegia utzi aurretik, zorrak zirela eta, De la Courtek hustu egin zion moldiztegia eta beste lokal batera eramán; aitagarrebaren amaiera ekarri zuen lapurreta moduko hark.

<sup>12</sup> - Petri de la Courten etxean burutu ziren, orobat, Haranbururen *Deboçino escuarra, miraila eta oraciontegia* (1635) eta 1627an, haren erabilera pri-baturako (liburu-en inprimatze eta salmenta eskubideak Parisko M. Buon li-buru-saltzaileak baitzituen) euskal munduak ongisko ezagutzen zuen Pierre Lançreren “trois traités sur l’incroyabilité ou mécréance du sortilège”.

1624ko irailaren 20an Jacques Millanges hiltzean, inprimategiko material guztiaren inbentarioa eginarazi zuten ahaideek.

Besteren artean, irarkolako materialaren berri jasotzen da idazkian<sup>13</sup>. Honatx, prentsei dagokienez, inprimategian aurkitu zutena: “quatre presses garnies de cadre de fonte, avecq la vis et escrou, le timpan et trois flisquettes et son marbre, plus une autre presse non montée avecq son marbre de cuivre” eta, halaber, “deux presses en taille douce, l’une grande l’autre petite” (Roudié 1983, 74).

Horrezaz gainera, komenigarri daiteke bertan erabiltzen ziren tipo-motez ere ohartaraztea, berrogeita hamar urte lehenago Haultini erositako berberak baitirudite *gros romain*, *petit romain* eta *sain Augustin* izeneko tipoak eta zegozkien *italiqueak*.

Tipo berriak (haisetako bi, gainera, zeharo berriak) hauetara mugatzen omen ziren: *petit texte* eta *italikoa*, *gros* eta *petit canon* eta zegozkien *note* izenekoak, *petit romain grec*, *philosophie*, *cicero* eta *cicero italique*.

Inprenta-tresneria hartaz guztiaz eta “Erregeren inprimatzailea” delako pribilegioaz ere jabeturik, gorago aipatu den Guillaume suertatu zen Millanges etxeko ondoko inprimatzailea 1625-1649 bitartean.

Ezaguna den bezala, haren ardurapean argitaratu ziren euskal literatura kontrarreformistaren izenburu nagusiak: Joanes Etxeberri Ziburukoaren *Manual devotioenezcoaren* lehen edizioa (1627)<sup>14</sup>, *Noelacén* lehenengo bi edizioak (1630 eta 1645), *Eliçara erabiltceco liburua*(1636)<sup>15</sup>, Argaiñaratzen *Avisu eta exortacione probetbosac* galdua (1641) eta, azkenik, Axularren *Gero* liburua (1643).

<sup>13</sup> Nonbait Simon aitak eresia, ez baitirudi Jacquesen lan-bizitza laburrak horrelako erosketa larrietarako aukera gehiegirik eskaini zionik.

<sup>14</sup> Bigarren edizioa (1669) Guillaume Millangesen iloba eta oinordeko izango zen Jakobe Mongiron Millangesek argitaratu zuen moldiztegi berean.

<sup>15</sup> Bigarren argitarapena (1665) Jakobe Mongiron Millangesen lana izan zen.

1624ko inbentarioan adierazi bezala, aurrerantzean ere elizgizonak izan ziren inprimategiko bezero-kopuru handiena osatu zutenak. Kardinalik falta ez zelarik, Saintes-Angulema-Périgueux-Agen-Pau hiriek mugatzen duten akitaniar esparruaren barneko artzapezpiku eta kanonigoetatik hasita azken ordenataraino (jesuitak, frantziskotarrak, errekoletuak, kaputxinoak, minimoak, “irlandarrak”, etab.) Millangesenean zuten elizgizon gehienek erreferentziazko argialetxea, bai liburuz hornitzeko eta bai argitaratzeko orduan.

Erljioaren munduko bezero euskaldunak, beraz, ez ziren salbuespen gertatu Millangestarren moldiztegian.

## 2.- Materreren *Dotrina christiana* sotoetako ilunartean

Beste toki batean erakutsi ahal izan genuen Estebe Materreren *Dotrina christiana* liburuaren lehen edizioa (Bordele, 1617)<sup>16</sup>, egun ezagutzen ez duguna, eta bigarrena (1623) zeharo desberdinak zirela. Orobat, testuan bertan oinarriturik, aski garbi ikusi ahal izan genuen J. Vinsonen aurreratu hipotesiak (bigarren edizioak lehenaren materiala barnehartzen zuela proposatzen zuenak, alegia) ez zuela erreala izateko funtsik<sup>17</sup>.

Ez genuen muturra gehiegi sartu nahi izan paristarrak ematen zituen formatuari buruzko bestelako erreferentzietan, izan ere, *Dotrina christiana* liburua bera eskuztatzeak aukerarik ez izateaz gain (Oxfordeko Bodleian Library izenekoan baitago “ezagutzen” dugun ale bakarra<sup>18</sup>), arazoek biziki gaintitzen zuten harako artikulua haren esparrua.

<sup>16</sup> Wadding-ek utzi zuen liburu honen lehen erreferentzia: “Materre (etienne). Catechismus lingua Cantabrigiae. Burdigalae, apud Petrum de la Court, anno 1617” (*Scriptores ordinis minorum*, Erroma, 1650, 320 or., 2. zutabea; ikus Vinson 1891: 1984, 50).

<sup>17</sup> Ikus Salaberri (prentsan).

<sup>18</sup> Gainera, hiruzpalau orri gutxiagorekin ezagutu izan dugu gure artean ibili den kopia.

Halere, horrelakoei ere inoiz heldu behar zaiela eta, pare bat ohar luzatu nahi genuke lerrootan Jacques Millanges inprimatzaile bordeldarraren heriotzaren karietara burutu inbentarioaz baliaturik.

Adierazi bezala, Petrum de la Court izan zen euskal literaturara kontrarreformista argitaratzeari ekin zion lehen inprimatzaile frantziarra, kaleratutako lehen liburua Estebe Materrerren *Dotrina christiana* izan zelarik. Handik sei urtera -lehen edizio hura agortutakoan edo-, beste argitaraldi bat prestatu zuten, izenburu berberarekin, baina emendatua eta beste era batez taxutua, eta, nabarmenagoa dena, beste irarkola batean inrpimatua. Bigarren ediziotzat dugun argitalpena izan zen Jacques Millangesek argitaratutako hura.

Haren hiltzean, hona gakartzan argitalpen-inbentarioa eginarazi zuten emazte alargundu berriak, familian lehen inprimatzailea izandako Simon aitaren alargunak eta, hirugarrenik, Jacquesen lankide Claude Mongiron inprimatzailearenak.

XVI-XVII. mendeetako liburu-ekoizpenari buruzko informazioan aberatsa eta beste hainbat aldetatik ere interesgarria<sup>19</sup>, 1624ko inbentario honetan bada euskal literaturari dagokion jakingarririk. Nahi baino gutxiago, tamalez.

Desgravesek ezagutarazi albiste-altxor hartan, Materrerren liburuarekin zerikusirik dutenak dira -eta "dira" diogu, guk subjektua, aditza eta predikatua singularrean jarri beharko lirakeela uste badugu ere- euskal irakurlearen interesekoak.

Inbentarioan ematen den informazio zehatz honek, halere, ez bide du bat egiten orain arte dakigunarekin, ez eta, erantsiko genuke, Desgravesek berak iradoki edota ikusi uste duenarekin ere.

Izatez, Simon Millanges ospetsuaren seme nagusiaren ondatsun-zerrendan, 452. orriaren ifrentzuan, euskarazko katixisma

<sup>19</sup> Jacques Millangesek 97.000 liburu inguru zituen stock gisa, haietako 77.000 liburu Bordelen argitaratutakoei zegozkien eta 20.000 inguru bestelako tokietan (atzerrian zein Frantzian) egindakoei.

bati buruzko erreferentzia eskaintzen da, nonbait Materreren idazlanari legokiokeena, nahiz ez den autorearen izenik eransten:

“425 Catéchisme en basque, in-4<sup>o</sup>, en une balle”<sup>20</sup>

Baldin “balle” delako hori liburu-aleak bil ditzakeen fardel-tzat har badaiteke, argi da euskarazko katixima horiek guztiak ongi pilaturik -han-hemenka sakabanatu gabe, alegia- zeudela eta, ziurrenik, ongi loturik ere.

Horrezaz gainera, bistan da, fardelak zuen ale-kopuruaren berri ematen du albistearen aurretik doan zenbakiak. Beraz, 425 omen ziren inbentarioa egiteko orduan Millangesenean aurkitu zituzten katiximak. Jakina, dotrinok *materreak* zirela -edo izan behar zutela- irakurleon inferentzia baino ez da.

Bestalde, zerrendatzea 1624an egin zela ikusirik, zilegizkoa-edo zen halaber pentsatzea Materreri 1623an argitaratutako edizioari zegozkion aleak zirela oraindik banatu gabe zeudenak.

Inferentzia bikoitza, beraz, inbentarioko albistearen aurrean ikertzaileak egin izan duena.

Guztiarekin ere, eta katixima Materrereña zela onartuta ere, zail gertatzen da lehen edizioaren mamua uxatzea, bigarren edizioari buruz -ezaguna dugun ale bakarrean oinarrituta- iritsi zaizkigun datuak ez baitatoz bat inbentarioak islatutakoekin.

Ildo horretan, eta presakako kontrasteetarako besterik ez bada ere, Vinson dugu gure klasikoen argitzapenerako erreferentzia nagusia eta, noski, ohiko izargia. Ikus dezagun, bada, hark dioena<sup>21</sup>.

<sup>20</sup> Zilegizkoa zen, Desgravesek egin zuen bezala, Materreren liburua zela pentsatzea, baina ez, Wadding-i segituz, “Etienne” Materrereña, Estebe-reña baizik (Desgraves 1977, 35).

<sup>21</sup> Gogoan hartzekoa da, halere, 1623ko edizioa komentatzean jaurtikitako aierua (Materreren bigarren edizioa lehenengoaren materialekin osatua zegoela zioena, alegia) egiazat harturik idatzi zuela Vinsonen hainbat puntu -egun- eztabaidagarri eta eztabaidatu.

Bigarren edizioko liburuaren deskribapenean, “Pet. in-8” formatukoa dela esan ondoren, testuaren neurriak ere eskaintzen ditu osagarri gisa:

“Dimensions du texte, chiffres (au milieu) et signatures comprises: 96 mm de hauteur sur 42 mm 5 de justification” (Vinson 1891: 1984, 51).

Harrigarriro, Millangesenean egindako inbentarioan katixima “in-4<sup>o</sup>” egina dela zehazten da<sup>22</sup>.

Eredu desberdineko obrak lirateke, hortaz, erreferentziaturik aurkitzen ditugunak. Ondorioz, nekeza zuketen edizio berrekoak izateko.

Tamalez, dakigunaren eta inbentarioan adierazten zaigunaren arteko hodei beltzak ez dira erraz ezabatzen. Zeren eta, baldin egun ezagutzen dugun Oxfordeko ale bakarra 1623ko ediziokoa bada -ez da daturik bestela pentsatzeko-, eta 1624ko inbentarioan islatu ziren aleak bigarren edizio horretakoak ez baziren, zer da ondorioztatu behar dena? De la Court inprimatzailearenetik ermandako lehen edizio zahar ezezagunari zegozkion aleak zirela agian sotoan pilatu-bazterturik agertu zirenak? Errazago banatze-ko edota, akaso, zorren bat ordaintzeko eraman ote ziren hara?

Ez da bestelako aukerarik? Eta Millangesenean azkar prestatutako beste edizioen bat (hirugarrena?) balitz? Agian banatua izateko biderik ezagutu ez zuena?

Jacques Millangesen inprimategiko sotoetako ilunarteak, dena den, ez dira horretara mugatzen, inbentario bereko 516. orrialdearen ifrentzuan agertzen den “*Doctrina christiana*” izeneko ere Materrena bailitzan ikusi nahi izan baitu Desgravesek<sup>23</sup>.

<sup>22</sup> Ez da hemen aintzat hartuko Larramendik ezagutu bide zuen aleari buruzko albistea, “volumen en 12” eredukoa izateaz gainera, Baionan argitaratua baitzen (Larramendi 1745, lehen liburukia, xxxv or.). Askoz beranduagokoa, beraz.

<sup>23</sup> Bestelako daturik gabe, eta nonbait Materrenen bigarren edizioaren izenburua *Doctrina* (ez “doctrina”) *Christiana* dela gogoratu gabe, Desgravesek liburu-multzoa “Etienne Materre”-rena bailitzan ematen du “Index” delako aurkibidean (Desgraves 1977, 71).

Ez dirudi kontua hain argi dagoenik, ordea.

Albiste haren arabera, latinezko izenburu -orduan bederen-arrunta zeramatena 440 ale aurkitu zituzten Jacquesen inprimategiko sotoetan. Formatua, gainera, “in-24” omen zuen liburuak.

Aurreko albistean bezala, azken horretan ere ez zen zehazten ez nork ez noiz izan ziren argitaratuak liburu-sorta horiek. Beraz, berriro ere Materreri liburuaren errua leporatzearena Desgravesen beste inferentzia -arinedia, agian- baino ez litzateke.

Izan ere, ohiko edizioak 500-1.000 ale bitartekoak zirela onartuta ere (irarkolen praktika bestelakoa izan balitz ere, orduko alfabetizazio-tasak eta gainerako baldintza sozio-literarioak ikusita, ez dirudi gurean 500 ale baino gehiagoko argitalpenik espero zitekeenik), harrigarria zatekeen autore beraren idazlana formatu desberdinetako edizio bi kaleratu izana eta 865 ale oraindik biltegietan gordeta izatea.

Jakina, are harrigarriago egiten da pentsatzea, 1624an, zazpi urte lehenago bestek prentsaratutako edizio zaharkitu bateko horrenbeste ale saldu gabe izanik (425 ale, hain zuzen), egun ezagutzen dugun bezalako bigarren argitaraldi berri, egokitu eta emendatu bat kaleratzeari hel zekiokkeenik, ahantzi gabe hizkuntza txikiko, merkatu urriko eta publikazio kontrarreformistetan usatugabeko gizatalde bati zuzendua zela ekoizpena. Akaso garai hartan logikoa eta ekonomikoki egokia irudituko zitzaion inori lehen argitaraldia sotoetan ia osorik gordeta izatea eta bigarren bati bidea ireki eta argitaratzea?

Gutienez, ohikoa ez zen espiritu abenturazaleegia erakutsiko zukeen horrek inprimatzailearen baitan.

Baina Desgravesek *Doctrina Christiana* izeneko liburu-multzozko horrentzat nahi duen Materreren egiletzaren hipotesia baztertuta ere<sup>24</sup>, hona ekarri gaituen obraren inguruko argi-ilunak ez bide dira berehalakoan amaitzen.

<sup>24</sup> Agustin Higonakoaren obra klasikoaren edizioa izan bazitekeen ere, ezin ahantzi daiteke izenburu hori zeramatela garai hartan mundu guztian kalera-

Zeren eta, inbentarioko “in-24” formatuko *Doctrina* hori Materrerena ez izan arren, eta gorago aipatu “in-4<sup>o</sup>” delako edizioa lehena izan balitz ere, galdera garbia azalerraten da bigarren edizioa argitaratu berria zuen inprimatzaileari zuzentzeko, alegia, 1623ko “in-8” formatuko ale bat bera ere ez zen geratu inbentarioan deskribatutako funtsen artean? Zer esan nahi du horrek? Lehen edizioa saldu ezinik ibili zirela eta edizio berria, aldiz, inbentarioan aztarnarik ez uzteko moduko abiadurara saldu zela akaso?

Baina bada bestelako galderarik ere, batez ere handik mende eskasera Axularren *Gerorekin* burutuko zen edizio *piratari*<sup>25</sup> erreparatzen bazaio. Hots, salmenta-arrakasta ikusita, kontrolatu -nahi- ez zen edizioaren bat kaleratu gogo ote zuten Millangestarrek agian?

Ala -informatzaileen ohiko zintzotasuna zalantzan jartzeko asmorik gabe bada ere- oker emanak ditugu iritsi zaizkigun funtsezko erreferentziak?

Bide batez, nola zen isatsa jaten zuen arrainaren pasadizo hura?

---

tutako dotrina nagusiek. Hona hemen, adibide gisara, bitxienetako zenbait: Juan de Guevara-ren *Doctrina christiana en lengua huasteca* (Mexiko, 1548), Juan de la Cruz-en *Doctrina christiana en la lengua Guasteca, con la lengua castellana* (Pedro Otxarte-renean, Mexiko, 1571), Matin Perez de Ayala-ren *Doctrina Christiana, en lengua Arauiga y Castellana* (Valencia, 1566), Pedro de Feria-ren *Doctrina christiana en lengua castellana y çapoteca* (Mexico, 1567), *Doctrina Christiana y catecismo para instruccion de los Indios, y de las demas personas [...] traducida en las dos lenguas generales de este Reyno, Quichua y Aymara* (Lima, 1584: Perun inprimatu zen lehen liburua), *Doctrina Christiana en lengua española y tagala* (Manila, 1593: Filipinetan inprimatutako lehen liburua), Luis de Valdiviaren *Doctrina christiana y cathechismo en la lengua allentiac* (Lima 1607), etab. Gogora bedi, aldi berean, Millangestarrek Hegoaldeko merkatu gazteleraduna ere hornitzen zutela haien liburuekin. Gorago ikusi den bezala, Bilbo, Donostia, Iruña, Zaragoza... Simon Millangesek irekitako merkatu horietako batzuk baino ez ziren.

<sup>25</sup> Ikus Salaberri 2007.

## Bibliografia

- Arcocha-Scarcia, A., 2001, "Deux imprimeurs rochelais du XVI<sup>e</sup> siècle : Pierre Haultin, imprimeur du *Testamentv Berria* (1571) traduit par Jean de Liçarrague, et Jean Portau, imprimeur de l'édition 1579 des *Voyages aventreux* du capitaine-pilote Martin de Hoyarsabal de Ciboure", in *Actes du colloque sur Eugène Goybeneche*, Donostia, 53-83.
- Desgraves, L., 1977, "Les impressions bordelaises de l'inventaire après décès de Jacques Millanges (1624)", *Revue française d'histoire du livre* 14, 21-72.
- Desgraves, L., 1995, *Dictionnaire des imprimeurs, libraires et relieurs de Bordeaux et de la Gironde (XV<sup>e</sup>-XVIII<sup>e</sup> siècles)*, Baden-Baden & Bouxwiller.
- Lacombe, G., 1931, "De nouveau sur Liçarrague et ses collaborateurs", *RIEV* 22, 363-366.
- Larramendi, M., 1745, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*, B. Riesgo, Donostia.
- Materre, E., 1623, *Dotrina christiana*, Jacques Millanges, Bordele.
- Olaizola, J.M., 1993, *Historia del Protestantismo en el País Vasco. El Reino de Navarra en la encrucijada de su historia*, Iruña.
- Pallier, D., 1981, "Les impressions de la Contre-Réforme en France et l'apparition des grandes compagnies de libraires parisiens", *Revue française d'histoire du livre* 31, 215-274.
- Roudié, P., 1983, "L'imprimerie et la librairie Millanges en 1624", *Revue française d'histoire du livre* 39, 73-88.
- Salaberri, P., 2007, "Axularren Gero liburuaaren bigarren argitalpena lehenaren argitan" *Egan* LX-3/4: 173-200.
- Salaberri, P., (prentsan), "Materren 1623ko *Dotrina Christiana*", *Euskera*.
- Vinson, J., 1891-1898: 1984, *Bibliographie de la Langue Basque (Volumenes I y II)*, Donostia (1891eko *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* eta 1898ko *Complément et Supplément* liburuen edizio bateratua, eta J. Urkixoren oharrez hornitua).

Patxi Salaberri Muñoa